2ⁿ URTEA

# IBAIZABAL

7Iⁿ GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Maiatza-ren 10ⁿ | Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat. | 1903-ko Maiatza-ren 10ⁿ

**IBAIZABAL-en Echea: Bilbon Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.**

Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

## GAURKO PELOTARIAK

Zoricharrez otu edo bururatu jakun lengo domeka baten joatea Bilboko «Euskalduna» derichon pelotalekura.

Lenagoko jokaeran antzik bere eztauko gaurkoak; otzara luze ta chit okertuakaz, eta pelota bizi biziakaz, eta dana beso-itzulka jokatzen dabe; orregaitik dabill beti pelotea atzeko orma ondoan, aurrean jokada guichi egu ten dala. Augaitik da joko gogaikarria posturak eguitera eztoazanentzat, eta iruroguei lagun gueienez izango zirean beguiraleak.

Eguia esateko, pelotariai eurei bere ezkeutsan artu euskaldunen antz andirik joko-lekura urten ebenean; asi zirean noz edo beiñ, eta beti-bere entzuten guenduzan *atrás, deja, mia,* ta abar, eta sinistu guenduan etzireala euskaldunak.

Gueiago sendotu zan gure erechi au, entzutean birau edo *blasfemia* ichusiak Jaungoikoaren kontra, pelotea erratzen eben bakochean; aiñ ugari ta danak entzuteko moduan eze, arrituta guengozan eurai ta jenteari beguira; baiña jenteak entzuten zituan bake bakean, eguneroko gauzea entzuten dan leguez.

Alango baten gure urrean egoan guizon bategaz berba eguin eban pelotari batek, eta ¡euskaraz, guizonak!... Guk artu guenduen ikarea ta amurrua orduan, ezta erraz azaltzeko gauzea ¡Euskaldunen aoetan ainbeste zikinkeri! ¡Ikusi ezpaguendu ezkenduan sinistuko! ¡Pelotari ona izateko, zein da edozein gauzatan guizonak gaitasuna edo abilidadea eukiteko, Jaungoiko ta ama Birjiña maiteen kontra orrelako astakeriak esan bear balitzaz leguez! ¡Obe eguingo leukee gueiago euskerarik eguingo ezpalebe ta euren euskal-izenak erderara biurtuko balitue! ¡Euskalerriaren lotsagarriak!

Itandu gueutsan gure alboan egoan bati:

—¿Beraz, euskaldunak dira jokalari orreek?

—Bai, laurak.

—¿Eta beti darabille gaurko aoa?

—Bai bada; euren oitura edo ekandua da ori.

—¡Guizona! ta ¿jenteak eztauz iñoz issiltzen?

—¡Bai zera! Datozan gueienak eztentse orretan ezer zor; dirua jokatzera datoz, da irabazten badabe eztaukee birauen ardurarik, eta galtzen badabe, orduan eurak dira biraulariak.

Amaitu zan partidua, ta orduan ikusi guenduen noraguiño guizona jausi leiteken. Partidua galdu ebenen pelotari bietatik batari esan eutsezan chakurkeriak andiak eta garratzak izan zirean; eta ia joko-lekuko atetik joiala esan eutsan batek arpegui arpeguira berba deunga ta zikiña bere amaren kontrakoa. Uste izan guenduen ukabillaz musturretan erantzungo eutsala, ta ikusi bear guenduela bertan burruka gogorren bat; baiña ez, issil issilik eta burua makurtuta, jarraitu eban bere bidean euskaldun uzteldu arek.

Gogoratu jakun: —Eztok arritzeko orren apal da zapal eure burua ikustea, Jaungoikoaren kontra ik erabilli doan aoaz. Ondo merezidu ta daukak. Baintz benetako guizona ta benetako euskalduna, ezeuke esango biraurik ez Jaunaren kontra ez iñoren kontra, baiña ezeuke issilik eta gueldirik en zungo ik entzun doana.

¡Aztuko al jake beingo baten ikasi eben-euskerea, iñun lotsaritu eztaien gure izkuntza garbi ta gure Erri zintzoaren izena!

BLOA.

## Neskazarren lagun bat-eri

¡Ai zer gossoa eraguin zidan
IBAIZABALEK algara
Irakurtzean Elgoibartikan
Eguin diguten botada,
¿Andrea ezin mantendu duen
Guizon tristen bat oteda?...
Sentimentuan laguntzen diot
Orretara baldin bada.

Mendarotikan Elgoibarrera
Otedan bide luzia
Jakiteatik galdetu nuen
Bear otezan pasia,
Esan zidaten ordubetian
Allegatzen da kochia,
Eta onetan dudatu nintzan
Oteden beste klasia...

Aspaldicho da entzun nuela
Il zala karidadia,
Guchiena uste degun aldetik
Beti perseguidoria,
Guretzat gaizki itzeguin eta
¿Oientzat alda honoria?...
Oiala ezagututzen duen
Sastria ezta obia.

Neregatikan esango dezu
Naizela klase Eulia,
Asko lekutan sartzen naizela
Galtzera gauza guztia,
Bañan aitortu bear bazendu
Biotzetikan eguia
¿Ez otedezu beñere izan
Neskazarraren premia?

NESKAZAR BAT.

## EUSKALDUN ERDALZALEA

### Kirten bat.

I

—Sastiñ (1) berri onak omen dituzu.

—Bai andrea, bai; Jaungoikoari eskérrak.

—¿Noiz datorkizu semea?

—Datorren asteko asteazkenean.

—¿Eskutitzen bat eguiñ dizu?

—Bai andrea; Kelemete Markoteikoa etorri zan atzo, eta arekin bialdu dit.

—¿Semeak berak iskribatua?

—Bai andrea bai, eta oso ederki.

—Demontretan eztu guchi eguiñ; soldadu joan ta eskribatzen ikasi.

—¿Baña nola? Oso ederki; Legazpi zarral esan dit, arentzat baño gueiago dala, eta ezin irakurri duala.

—Beraz askocho ikasi du.

—Eguin beza mesede irakurtzeaz; ikusiko du nola iskribatzen duan gure mutillak.

—Ikusi dezagun ba ...*Keriro Padre: En semana ke biene, Merkules me ira kasa para senar, kon kañulo, lisensia para meter, disiete reales balimento ke se á kostao y pagao... De mano ajena=Anakoleto.*

—¿Zer derizkio?

—Poliki moldatzen da. ...¿Zein da Mérkules ori?

—¿Eztu bedorrek ere entenditzen?

—Ez ba.

—Ba, asteazkena esan nai omen du: ala esan digu Kelemetek.

—¿Eta semeak berak iskribatu du?

—Ala esan digu Kelemetek.

—¿Zer esan nai otedu ba «*de mano ajenak*»

—*Demonagen* ori kabua omen da.

—Kabua beraz ¿e?

—Bai andrea; purriela.

—Orain kontentuz e on o zera ba

—Bai andrea; pozez choro eguiten *sastipasio* osoan pamili guzia.

II

—Sastiñ; ¿zer berri ekarri dizu semeak?

—Oso onak Jauna.

—¿Nun ibili da?

—Burdeosen, (1) Samalankan, Seboillan, Katalumian eta Bartzelonan, *erregimento kaballeria Almantzakoan.*

—¿*Almantzakoan* beraz?

—Bai, mantsuaren izena omen du, baña azkarrenetakoa omen da erregimentu ori.

—Gauz asko ikusiko zituan; ¿ezta ala?

—¿Ikusi bakarrik? Bai ikasi ere, arraiak ezpaitu: *lordo, nolbe, piño korcho,* (2) *lion*... eta beste izen asko, berreunetaraño, beste ainbeste zaldirenak, esaten ditu *oraporisko* letaña baño ere luzeago.

—¿Gradurik eman diote?

—Bai Jauna *kabosegundoren asistante; arraso,* omen du izena gradu orrek.

—*Jinete* ona izango da.

—Bai bai; eztet uste, beste bat, oberik, izango danik emen inguruan.

—Baliteke beñepeiñ gure inguruan ez izatea.

III

—Kaissio Anakoleto.

—Ola Josiñazio.

—¿Zer moduz ibili guera soldadutzan?

—Danetik probatu degu.

—Zaldizko noski, ¿e?

—Bai, alasse da.

—Beraz *kaballero* eguiña egongo zera.

—Bai berreun zaldiren izenak Abe Maria graziaz betea bezelasse, esango nituzke.

—¿Banaka?

—Bai guizona bai; itz bakoitzian bi izen ere iñoiz... estu-estuan...

—Ederki da, ederki.

—¡Zer! Zaldi batek irrintzi eguiten bazuan ere, bereala esaten nuan zeñena zan: irrintz ori da *Nolberena* edo onelakorena.

—¿Igarri ere bai?

—¡*Baia ke salira!*...

(1) Sebastian.

(1) Burgoson
(2) Corzo.

—Ori esan nai det ba zaldira edo zaldiari.

—Baita irrintziaren usaitik ere.

—Beraz zure echeko astoaren arrantza nola nai ezagutuko zenduke.

—Baita milla astoren artetik ere.

—Bai; alkarren antza dutenak... (eju, eju, ¡ause da eztula! Banua zerbait artzera...)

IV

Anakoletok bere astoari ipiñi zion izena, *Mirtena*; soldadutzako bere lagunik maiteenaren lonbria omen zan. Nunbait alkarren antzekoak beti... (eju... eju) eztit pakean utziko estul onechek; ¡Jesus!...

Egun batean, lanian ari zala, aditu zuan Anakoletok asto-arrantz bat, eta esan zuan: ¿ze ote du nere astoak?

Guizon batek zeraman aurrean aztoa.

—Adiskidea; ¿nora daramazu asto ori?

—Echera.

—¿Nere astoa zure echera?

—Nerea da.

—Ez, ezta.

—Bai, bada.

—Berealasse ikusiko dezu norena dan.

Achur-kirten batez armaturik zijoan Anakoleto Astozaleari gogor eguiteko ustean, baña aditu zuan arrantza bat, bere okullutik ateratzen zala, zirudiena; sartu zan okullura, eta an zegoan bere *Mirtena* gaissoa, zaldalea jango zukeala. Lotsatu zan Anakoleto bere utseguitea ezagutzean eta esan zuan—kirtenkeri bat eguiñ eztedanian...

Erri guziak jakin zuan kirtenkeriaren berri eta Anakoletoren pama beeracho guelditu zan.

Artu zuan bere *Mirtena* ori saltzeko asmoa issill-issillik, eta joan zan goizean goiz, periegun batean, alboerri batera. Baña baziran errian asmo orren berri jakiñ zutenak.

Anakoleto eldu zan peria eguiten zan lekura, eta an zeuden, erritar eta arrotz, lagun askocho.

Oraindik ezta iñor eldu, jakitera, nondik eta nola atera zan, an aditu zan berso au:

Esango det egui bat
Danak dakitena,
Bat da Anakoleto
Bestea Mirtena,
Orra pareja chit goiz
Echetik irtena
Azpian astoa ta
Gañian kirtena.

P. M.

1903. Orrillaren 4. an.

# AITA SEMIAK

—Sei aldiz esan diat
goguan detala,
andre bat artutzeko
denbora dekala
eta.....
—Aita, nik eztet
andre bearrikan:
¿zer eguiteko artu
ezpadet griñikan?
—Bi bazeuzkat iretzat.
—¡Aita!
—Bi andre gai.
—¿Bi ematen dizkit, bat
ezpaldin badet nai?
—¿Mutill eztek ikusten
echian onela,
emakumerik gabe
chit gaizki gaudela?
Badakizkik zer diran
gure otorduak,
babak arria baña
gogorragokuak.
Talo egal mearrak
ta erre ariñak,
bakallua igarra,
ustelak chardiñak,
ala emazte gaiak
zauzkat goiko guelan
andretzat bat artu ta
moldatutzen gueran.
Guazemak beren gana;
guazemak seguiran,
ikusiko dituk zer
landariak diran
eta ondoren beguiz
jo ta beriala,
guelditu biarra aiz
baba darikala.
. . . . . .
Mutill, orra aurrian
esandako biak,
¡zer ederki zabaltzen
dituzten beguiak!
Ara zuri gorria;
orra belcherana,
bietan aukera zak
guztatzen zaikana
—¡Baña aita!
¿Zeiñ nai dek?
¡au mutill kaikua!
—¿Badaki zeiñ nai detan?.....
bien erdikua.

V. IRAOLA.

# ZARAUZTIK

Mirabe gazte batzuen arteko iztaldia neronek entzun edo aditua.

Guipuzkoako uri batetik, joan zan serbitzera mirabe gazte bat Gaztelako uri aundi batera; lau urte igaro ondoan nola urreratzen baizan bere uriko pesta eguna, oroitu zitzaion azaldu aldi bat eguitea; ortarako bere nagusiaren bainena eskatu eta arturik, eldu zan bere jaioturira pesta besperan. Emen burnibideko gueltokian ichodoten zioten bere uriko lengo lagunak, eta etzuan lurrean oña jarri, batek galde eguiten dio esanaz:

—*¿Qué tal, chica?*

Bekoki aserrea jarriaz erantzuten dio:

—¿Zer, emen ere erderaz mintzatu bear al degu? Lau urte aundi igaro ditut beti amesetan euskararekin, eta orain pozaren pozez urbildu naizenean izkuntza doatsu loi gabearen errira ¿erderaz? Mintza, mintza euskaraz, nere lagunak bazerate, eztezala nai Aita San Iñaziok bere lur dontsu ontan bestela mintzatzea.

Orduan batek esaten dio:

—Nola askok edo gueienak erdalerrian izanak esaten baiduten euskara aztutzen dala urte bete an igaro ezkero, orregatik mintzatu guera erdaraz.

Damacho maite onek erantzuten die:

—Guezurra esaten dute ori diotenak; nik lau urte igaro ditut nere buruaz bakarrik euskaraz itzeguiten lagun bat billatzeko posean oni itzeguiteko, eta denbora orretan etzait guertatu; eguia bear det esan, beti nerekin nuben lagun bat benetan euskalduna.

—¿Laguna euskalduna zenduen?

—Esan det, benetakoa.

—¿Nongoa zan ori?

Jartzen du bere patrikaran eskua eta esaten du—emengoa—aterarik liburucho bat euskaraz moldatua;—Emendik nere ama zanak erakutsi zidan otoitz eguiten eta ¿nola lezake kristauak utzi aztutzen bere Eguilleari lenengo eskaera eguin zion izkuntza? Gañera, nere aita zarrak etzuan noski ikasiko erdaraz, anaiak ere eman dit aditzera euskara maite duela, eskribitzen dizkidala eskutitzak gure izkuntza berdin gabean, ala berean erantzun izan diodala neronek ere.

Onetan azaltzen da bere lengusua eta galde eguiten dio:

—*¿Cómo te vá, prima?*

Eta euskaldun onak esaten dio asarrez:

—Euskaraz ondo, erdaraz charto.

Uriko pesta egunean uste zuten bere lagunak, zeinbat Gaztelan izantako neska arro bezela jantzirik irtengo zala; baña ez nola euskaldun ona baizan eta maite zituan bere ama zanak gaztetan erakutsitako oiturak, jantzi zan bere echeari zegokion moduan. Gueroz jakin det aita zarrari bei baterosiaz gañera echearen pecha edo errenta saritu eta eman dizkala diru chartel politak; merezi luke bere izena Ibaizaban-en jartzia, bañan ezterizkiot ondo bere baimenik gabe. ¿Zer derizkiozute, irakurleak, mirabe onegatik? Nik esaten det dala gure antziñako euskaldun emakumen ispillu eta irudi bizia; bai, ori bezelako guchi arkitzen guera gaurko egunean; asko balira ez litzake entzungo onenbeste erdara, batez ere emakumen artean.

Ez bada esan beti ari naizela iñor menperatzen, merezi duena goratzen degu, mirabe zintzo benetako euskaldun onekin eguiten detan bezela.

Nere adiskide Erramon Illarramendik bigaldu dizkit jostirudi bi: bat «Testimonio Falsoa» izentatzen dana, eta bestea «Tomass Iñassio Donostian». Erreal biñan saltzen dira Zarautzen, *Vizconde* karrikan, *Bizi Bedi Euskara* deritzaion dendan.

Gaur eguin dira alkarren jabe Prantzizko Iraola eta Guadalupe Izeta, biak euskalzaleak. Jaungoikoak bedeinka ditzala, eta eman ditzatela, berak bezela, euskaldun benetako semeak.

JENARO ELIZONDO

Maiatzaren 5-n.

# BI GUEZURTI

—Ikusi izandu det
nik egun batian
guizon batek sartutzen
bere ijarian
amabost indi ollar
aurren-aurrenian,
eta amar arkume
oien ondorian,
guero amabi cherri
erriak labian,
eta atun aundi bat
azken ssamarrian,
Plakia sentitzen det,
dio, barrenian,
ta idi bat jan zuen
azken azkenian.
—Ikusi det kazuela
bat aiñ aundia
non bera berotzeko
sutu zan erria,
ta su ura oraindik
zan oso chikia
bada etzan berotzen
kazuel guzia,
kanpoan guelditurik
beraren erdia,
berotu ezin zala
bere ipurdia.
Ezin berotu zuten...
¡jendian larria!...
ta azpian sartu zioten
noizpait... eguzkia.
—¿Alako kazuela
guizona, zertako?
—Zure guizonan janak
maniatutzeko.

ENRIKE ELIZECHEA.

# ¿Zertarako oiekin ezkontzen zerate?

I

Euskalerriko neskachachoak
Ernaitu zaitezte ¡arren!
Zerengatikan gaitz pegakorra
Dabilkizuten ondoren;
Eguin, eguin *Gurutze*,
Orobat *Aitaren*,
*Plaga* orren ekaitza
Galdu dedin emen
Zergatikan kaltea
Aundia dakarren,
Sartu ezkeroztandik
Echean barrenen.

II

Erraiñuaren guisa dabiltza
Beti zuen ondorean,
Gauza on franko badaukatela
Miñgaiñ gozoen gaiñean;
*Mi padre gobernador*
*Mi tio alcalde*
*Mis hermanas maestras*
*Conmigo cásate...*
¡Ai! mirabe gazteak,
Erantzun nazute,
¿Zertarako oiekin
Ezkontzen zerate?

III

*Lo menos tengo cien millones*
Ori diru jakiñean,
*Y los billetes del banco cojo*
Gaiñezka berriz kofrean;
*Tengo pueblos enteros*
Aragoi aldean,
*Tengo dos mil molinos*
Gau ta egun lanean,
*Tengo un gran piano...*
Bizkarren gaiñean,
*Porque allí dormía*
Laztozko oean...

IV

*Tenemos viñas, tenemos trigos,*
*¡Tenemos tanto aceite!...*
*No tengo nada* ezkondutzean
Ala guertatzen zerate;
Onak badiradela
Esaten dizute
Bi milletatikan bat
Atera zazute;
Inpernutik zerura
Sartzen dituzute,
Eguin ezkeroztandik
Orien emazte.

V

Ezkondu eta ondorenean
Dira komeri politak,
Gaiso daudela lanerako ta
Azaltzen dirade tranpak;
Guizona echean ta
Andrea fabrikan,
Gurasoak errietan
Zirrikitutikan.

(GURASOAK)

Bialdu zan senarra
Azkar echetikan,
Aurren bat izan baiñan
Lenagotandikan.

VI

(EMAZTEA)

*Mi muy querido ¡ay! mi marido,*
*Qué malas noticias hay*
*Porque vosotros* alperkerian
Dezutelako bizi nai;
*Desde mañana* asi
Bearko lanean,
Kizkurtzen egon gabe
Suaren aurrean,
Atso-sukaldeturik
Eltzeen gaiñean,
*Cantando seguidillas*
Tripa betetzean.

VII

(SENARRA)

*A mí me llaman Prisco-veneno,*
*Y al mismo tiempo soy liberal,*
*Soy mano-negra y socialista,*
*Soy monárquico y federal;*
*El día que me llegue*
*Capitán general,*
*Con estos sagarduos*
*No voy á tolerar,*
*Porque siempre me dicen*
*Vete á trabajar,*
*Cuando menos se piensan*
*Les voy á fusilar.*

VIII

(EMAZTEA)

*Con tus mentiras, con tus garbanzos,*
*Cansos nos tienes* aspaldi,
*Si eres liberal, si eres federal,*
*Todas las farsas para tí;*
*Aquí es necesario*
*Trabajar, trabajar,*
*Con fábulas la tripa*
*No se puede llenar;*
*El padre á palizas*
*Hoy te va á matar,*
*Hasta que te entierren*
*No vas á descansar.*

IX

(SENARRA)

*A mí á palos nadie me mata*
*Porque soy valiente,*
*Tengo en Sevilla una* ganbara
Guizonen larruz betea;
*Hice robos y muertes*
Utrera aldean,
*Estuve en presidio*
Oguei bat urtean,
*Prefiero por la honra*
*Morirme* katean,
*Tocando mi piano*
Ta ez asi lanean.

X

(Onetan andrea joka asi zan eta onek esaten du).

Aita, etorri bedi agudo
Makill aundi bat artuta,
Zerengatikan alper char onek
Narabillkien jokaka.

(SENARRA)

*Cállate sagardua,*
*Cállate la boca,*
*No grites* guretarrak
Bide gabe jo ta.

(EMAZTEA)

Aita betor agudo
Ia ito nau ta.

(SENARRA)

*Habla aquí en cristiano*
*¿Por qué fuistes tonta?*

XI

(EMAZTEA)

¡Ai! Jaungoikua ¡aussen da aussen!
Aussen da bizimodua
¡Oi! ¡Oi! Aitacho ¿Ezaldu entzun
Biotz nereko ojua?

(AITA)

Bai, bai, aditu diñat
Or naun, or agudo,
¡A! ¡A! zer nolakoak
Dizkaten emango
Ez diñ ez eche ontan
Bearrik eguingo,
Bat bi iru lau esan ta
Zionat ekingo.

XII

(SENARRA)

*Vaya qué padre tan embustero*
*Vaya qué padre tan bribón.*

(EMAZTEA)

Aita, labana artu du eta
Obe du pakean egon.

(SENARRA)

*Venga V. cuanto antes,*
*Venga V. mal suegro,*
*Soy capaz de llamarle*
*Lerdo más que ler lo,*
*En figura de estátua*
*Aquí le espero,*
*Me voy á ser un héroe*
*(Si no tengo miedo).*

XIII

(AITA makil batekin)

¿Zer esaten dek mutur-zikiña?
¿Zer esaten dek orden?
Ara non dekan i zapaltzeko
Labana baiñan obea;
Kis kas, kis kas, kis kas,
Iretzako seiak,
Da, da, da, da, da, da,
Oraiñ amabiak,
Dan, jo dik ordubata,
Bun, bun, ordu biak,
Orlako erlejurik
Etzeukak erriak.

XIV

(SENARRA)

*Tras los placeres vienen las penas*
*¡O! Suegro ¡Perdón y perdón!*

(AITA)

*No, no, tómalos á buena cuenta*
*Aprende quien es el bribón.*

(SENARRA)

*Queridísimo padre*
*¡Qué día tan fatal!*
*Los huesos el entierro*
*Me empiezan á cantar;*
*¡Usted si que es un héroe!*
*Y también inmortal,*
*Cuantos me tiene dados*
*Saque V. el total.*



ratzen dirade meza oiek? eta besten batek erantzungo luke: Apaizan echetikan. Orregatikan esan duk ik: Zaldu zadan echea eta jarri zadan denda, eta jarri zadan ez-ezagun artean iñork nere eltzean sartu ez dezan sudurrik eta sinistu dezaten nere ondasunak salbentaren irabaziak ekarri dituala. ¿Ez duk ori alan?

—¿Baiña zer esan nai duk ainbeste itz alperrekin, Michel?

—Esan nai diat, mutill abilla izan aizela eta aurrera ala izan nai baduk, eman bear dirakela dozenacho bat ontzako; aiekin igortziaz eskuak ohori zaitzailleari ateratzen ote degun eguzkitara an kalabozoan uztel-tzen dagoana.

—Lenago ere esan diat Michel, ez dedala nik dirurikan. Eta iduki eta ere ¿uste dek oraiñ arte eman ditudanak ez diradela naikoa?

—Beguira, Pachi; eguin zak nai dekana. Ni banijoak ik zer esan dekan ari esatera... ikusiko duk nola kantatzen duan. ¡Pachi! iru larrua maitatzen baduk atera itzak amabi ontzako esandakoak.

Pachik aguiñak estutuaz ezpañetatikan odola ateratzeraiño esan zuan birau izugarri bat, eta maiko kuchatillatikan atera zituan sei ontzako eguiñak eta bota zituan maian gañean.

—Adiskide—esan zion Michelek—sei falta dituk emen:

—Ez zidukat gueiago.

—Amabi bear dituk.

Pachik bota zuan beste ontzako bat eta beste birau bat.



tetzen aiene batek bakarrik. Pachin beguirakunak uzten zuan beldurrez ikara eta non zegoan ez zekiala. Beldur onekin baliatuaz eguiten ziozkan madarikatu arek zakur amorratu bati opa bear ez zaizkonak, eta ikusirikan bere arreba, arriari negar eragui. teko estaduan, orduan eta gogorrago izaten zan berarekin.

¡Bai! ¡Arechek igarotzen zuan eguiazko martirioa!

Illun arratz batean sartu zan Pachin dendan, arpeguia eta eskuak beltzak zituan gizon bat, eta ez gabon eta ez berrion, eseri zan zokoan zegoan aulki batean.

Ura ikustean, jaiki zan Pachi salto batean eta ichi zuan guiltzaz dendako atea, urrena sartu zan barrenera eta ikusirik arreba bere lanean zebillela, ichi zuan osteko ate chikia ere, eta eseri zanean bere lekuan esan zuan:

—¿Zerk ekarri au onera, Michel?

—Deabruak eraman nazala, ez i ikusteko gogoak, Pachi, baizikan etorri nauk iri esatera, choria azpertu dala kaiolan egotez, eta esan zidak eze, eguiten ezpaditugu bideak ura andikan laister ateratzeko, denbora pasa, kantuan asiko dala eta aren kantuan otsera bat edo bat joango zaiola lagun eguitera. Ni an egon naizen artean, ainbestean ere egon duk, baiña ni andik atera nintzan ezkero ezkerrak kapaiñak eguin zuten deklarazioari esanaz ni San Miguel arratzean Istingagorriko pagadian egon nintzala kapaiñari burlaka kantuan, guizajo aura, guerog eta asarreago ziok eta esaten dik, aguindu ziozuten bezela andikan ateratzen ezpadezute, dana zan bezela garbi esango duela.

XV

(AITA)

Aissa naiukek denbora on au
Aitak alperrik galtzea,
Artzen ditunak egokigo dek
Totala ateratzea;
Zirt, zart, zirt, zart, zirt, zart,
Ortikan kalera,
Din, dan, din, dan, din dan,
Segui zak aurrera.

(SENARRA).

*¿Quiere V. mandarme*
Ebroz auzkaldera?

(AITA)

Bai, bai, pianu ori
Afinatutzera.

XVI

(JOANERAN) (AITA)

Pasa diagu Bitoria ta
Denboraz gaituk Mirandan,
Ire lagunak entzun dezaten
Jotzera niak din, din, dan;
Joan adi emendikan
*A tu tierrara*
Ez ago etorririk
Gueiago onera,
¡Or! ¡Or! izan dedilla
Zuen akabera,
Erdaldunak erdaldun
Euskalak euskera.

RAMOS AZKARATE.

## ZARRAPARREA

Burtariñen lasterketa ill onen 26 n da, baiña lau egun aurrerago urtengo eidabe Donostiatik Bilborako irurogue burtariñek, ichasaldeko bidetik, guero Bilbotik Bitoriara joateko usteaz.

Euretan etorriko eidira oguei andra, laroguei jaun, da iruroguei makinista, alde oneek ikusteko gogoaz eta... basterrai gogait eraguitera euren burdiokaz.

Bilkoko burtarin-zaleak guertututen asi dira kanpoko orrei arrera on bat eguiteko, esan eztaien emen ondiño basatiak gareala; orregaitik dala diñoe, baiña izan leike zorrean istearren, emengoai guero areen errialdera doazanean beste ainbeste eguin daioen.

---

Madrillan eskatu deutse Gobiernuari, kentzeko guardia-zibillai Mauser pusilla ta Erremintona erabilli daieela lenagoko moduan, kaleetara jentea bakean ipinten urten bear dabenean, Mauserraz ezbear andiak eguiten dituezala ta. Ichuraz, Gobiernuak ontzat artu dau eskaera ori, ta eguingo da eskatu dan moduan.

Jotera jaurtiten badabe, nai Mauserra izan nai Erremintona izan... parra, kale artean beintzat; bada machiñatuta dabizanak eta zibillak eztabe euren artean eukiten bitarte andirik.

## IZKIRIMIRIAK

—¡Antoni! ¿Ez dezu ikusten katua angulak jaten ari dala?
—Ez andria, ezta jaten ari.
—¿Zer arida bada?
—Kontatzen.

---

Boto billa zebiltzan batzuek joan ziran beiñ batean zapatari batengana botoa eskatzera; eta onek, sekulan ikusi etzituen aiek bere dendan ikusi zituenian, galdetu zien:

—¿Zer dakarzue?
—Botoa eskatzera gatoz.
—¿Botoen billa zatozte, botoen billa? Etzerate ala etortzen boten billa. Joan zaitezte, bada, botoen billa boten billa joaten zeraten tokira.

---

Andia da zure kontua—esan eutsan beiñ baten ugazabak bere *escritorio*-ko guizon bati—Egun arguitan, beste guztiak lanean dagozan artean, zu lo; ¡aorisse da bizikerea!

—Jauna, parkatu beit; gabaz eztot lorik eguiten. Ume bat daukagu negarti utsa, arriari bere loa galaroztekoa.

—Aurrerantzean ekarrizu zeugaz batera *escritorio*-ra, ta negar eguin daiala emenche urtu arte, loa galarazo daizun.

---

—Ara nik emen, bost ontzako urre ederrak.
—Ederrak dira bai; ¿biar aldituzu?

## IGARKIZUNAK

Umetan edo chikitan zuri, morroskotan gorri, aguretan baltz, eta eperdia latz. ¿Zer da?

LAUKINIZKO BENITOK.

Lengo astekoen epaia era bitara da: 1.º Zortzi arroako ontzitik irukoa bete, eta au bostekora ustu; alan, gueratzen da zortzikoa bostegaz, bostekoa irugaz, eta irukoa utsik. Bete barriro irukoa zortzikotik, eta berea~~la irukotik bota bostekora au bete~~ arte; alan, gueratuko dira zortzikoa bigaz, bostekoa beterik (bostegaz), eta irukoa bategaz. Ustu bostekoak daukana zortzikora, eta guero, irukoak daukana bostekora; alan, zortzikoak daukoz zazpi arroa, bostekoak bat, eta irukoak baperez. Bete orain irukoa zortzikotik, eta ustu bereala bostekora; alan, zortzikoan gueratu dira lau, eta bostekoan dagoz beste lau. Orra zortzi arroak launan banatuta.

2.ª Zortzi arroako ontzitik bostekoa bete, eta guero bostekotik irukoa; orretara, gueratu dira zortzikoan iru arroa, bostekoan bi, ta irukoan iru (beterik), Iru arroako ontzi au ustu zortzikora, ta bostekoak daukazan biak irukora; orretara, zortzikoan daukagur sei, bostekoan baperez, eta irukoan bi. Zortzikoak daukazan seiretatik bostekoa bete, ta guero bostekotik irukoa bete; alan, gueratuko dira bostekoan lau arroa, irukoan iru, ta zortzikoan bat. Eztago besterik irukoa zortzikora ustutea baiño, ta emen dagoan bategaz izango dira lau. Orra zortzi arroak erdibituta.

Bialdu deuskue epaia lenengo erara edo modura: Donostiako Jose Miguel Azkuek, Mendaroko P. M.-k, Ondarroako Sabas Urkizuk, Bergarako Gregorio Sasietak, eta Lezoko J. S.-k.

Bigarren erara edo modura: Laukinizko Benitok, eta Mondragoeko Kerejetak.

Eta bietara: Tolosako Miguel Beobidek.

LA EDITORIAL VIZCAINA dericho inclaguintzan Gran Vía, 26 eta Ledesma, 15.



Pachik ukabillarekin maia joaz eta birau bat botaz esan zuan:

—Eta ¿zergatikan bota bear zaizkit neri chalma guztiak, izanik danak okerra eguin guenduanak?

—Poliki itz eguizu *compañero*, poliki. Nik eguin diat nere eskota. Zuek eman zizkidatzuzten oguei ontzako zikiñagatikan an egon nauk oguei astean ¡tzalean, eta zuek, urre eta zidarrezko gauzan gaiñera, berreun bana ontzako gorde zenduztenok eztezute oraindikan ankarik sartu eguzki guchiko aposentuan Besteak eskutatuituan deabruak zekik nora, eta oraiñ, i bakarrik aiz beldur izan bear duana..... badakik, untura oriekin kaiolako atea idikitzen ezpadiok choriari, igues eguin dezan.

—¡Sinistu nazak Michel! chanponikan ez zidukat.

—¡Beste zakur bati ezur ori Pachi! ¡Pachi, kontuz ibilli adi! zergatik Anzuelan asi duk zurru-murru bat, on aundirikan eguingo ez diana.

—Eta ¿zer ajola zaidak neri Anzuelarren berriketagandikan?

—Eztakik Pachi, Pepeten ipuia?

—Eztiat nai ere jakiterik.

—Baiña ¿nola izan lezakek ik ez jakitea, bularreko aurrak dakitenean zer igaro zitzaion Pepete dontsuari?

—Michel, utzi zaiek kopla oieri, ez zeukatek zer ikusirikan nerekin eta.....

—¿Ez dutela zer ikusirik irekin? ¡Aitu zak, aitu zak! eta aurki esango didak daukaten edo ez: «Pepete uen Leazpiar bat, eta ik eguin dean bezela saldu ziran bere echea, eta bizi uen, jan edan eta josta, erregue



bat baiño egokiago... baiña atera eta ez sartu aguertu uen kuchatillaren sorua eta joanzituan deabruechera Pepeten jan edanak eta jolasak. Ondo nai eta ezin izan, guizajo ura ari uan beti burua nekatzen, nola otezeikean bizi ongui eta lanikan eguin gabe.

Arratz batean joan uen Villaerrealera, sartu uan osteko atetikan indiano baten echean eta egun sentirako jo zikan Legazpi, ezin jaso ala ontzako urrez zamatua. Asi uan justizia lapurraren billa, baiña aleguin guztiak alperrak izan ituan, zergatik etzuten ezeren lorratzik topatu. Bitartean bizi uen gure Pepelen da guero baiño obekiago. Denbora joan, denbora etorri, iñor ez uan oroitzen Villaerrealgo indiano lumatuarekin, non egun baten asi ziraden zar eta gazte, atsoak eta mutikoak, kantari

Pepe, Pepete,
Iñoren gauzaz
Zuk echea bete.

Eldu uen kanta Bergara juezan belarrietara eta bota dizko Pepe dontsuari bost mandamentuak gañean, eta ortikan zirri eta emetikan galde, aitortu eraguin zioten zan bezela Villaerrealgo indianoari eman zion chalma, eta mezede onen saria eman zioten dantzatu eraguiñaz nai etzuan pandangua soka batetikan zinzilika». Ala ba, Pachi, beguira zak ondo, Pepeten ipuiak daukan edo ez, zer ikusirikan; beguira zak ongui Anzuelan dabillen zurrumurrua eldu litekean edo ez juezaren belarrietara. Ik esan duk ire artean: Anzuelan ezin nezake kanpiatu diru onekin zergatik bat edo batek galdetuko luke: ¿Nondik ate-